

ALFONSO SASTRE KULTUR ELKARTEAK HIRU ARGITALETXEAREKIN BATERA KALERATU DITU BI LIBURUAK

Alfonso Sastrearen gaineko saiakera eta lau antzezlan bildu ditu ASKE-k bi liburutan

■ Europako zenbait unibertsitatetako hamaika irakaslek Sastrearen obraren inguruan eginiko gogoetak dakartza lehenak

■ «Azter-objetu izateak norberak eginiko lanari buruz gauza berriak aurkitzeko balio» duela dio antzerkigile hondarribitartuak

■ 'Euskal Herria a escena: un pais en el teatro' liburuak Legasse, Aresti, Xabi Puerta, Paco Obregon eta Ttanttakaren lan bana jasotzen ditu

Gorka Erostarbe / Donostia

BI LIBURU berri aurkeztu zituen atzo Alfonso Sastre Kultur Elkarteak (ASKE). Biek dute hausnargai eta muin nagusi antzerkia. Lehenengoak *Euskal Herria a escena: un pais en el teatro* (*Euskal Herria eszenara: herri bat antzerkian*) du izenburua, eta lau antzerki obra biltzen ditu. Bigarren liburua, elkarteari izena damaion antzerkigilearen obraren inguruko azterketa nahiz hausnarketa dakartza, *Once ensayos en busca de un autor: Alfonso Sastre* (*Hamaika saiakera egile baten bila: Alfonso Sastre*) izenburupean. Bi liburuok Hiru argitaletxearekin elkarlanean kaleratu ditu Askek. Lehenago, *Alfonso Sastre o la ilusion tragica* (*Alfonso Sastre edo ilusio tragikoa*) liburua ere argitaratu zuten Hiru-Aske izeneko bildumari hasera emanez.



EDURNE KOCH

Liburuaren egile, ASKE eta Hiruko arduradun eta Alfonso Sastre bera, atzo, aurkezpena egin aurretik.

Lau baldintza

Euskal Herria a escena: un pais en el teatro lanak 1998ko abenduan Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egindako izen bereko topaketetan du iturburua. Liburu horren koordinazioaz Xabi Puerta antzerkigilea arduratu da. Hark atzo eginiko aurkezpenean azaldu zenez, KMKn eginiko topaketek hausnarketa helburu bikoitza izan zuten: «batetik, Euskal Herriko antzerkigintzaren azken urteetako historiaren berrikuspen diakronikoa egitea, eta, bestetik, Euskal Herriko bizitza eta arazoek bertan eginiko antzerkian izan duten islada nolakoa den aztertzea». Liburu berriak ere, gai berbera du muin nagusitzat; «alabaina, solasaldi guztien transkripzioa egin beharrean, erantzun praktikoa emango luke ten lau antzerki testu agertzea deliberatu genuen», azaldu zuen Xabi Puertak.

Hautaturiko lau obrak, Marc Legassen *Gastibeltza-*

ren karabinak, Gabriel Arestiren testuez osaturiko *Harrizko Aresti hau*, Xabi Puerta beraren eta Paco Obregonen *El amante de Lili Marlen* (*Lili Marlenen maitalea*), eta Ttanttaka Teatrotoren *El florido pensil* dira. Lau lanok, beste horrenbeste baldintza garrantzitsu betetzen dituztela gaineratu zuen Puertak: «Euskal Herriko eszenara begira eginikoak dira, bertako errealtateko gai batetaz dihardute, argitaratu gabeak dira eta kalitatea dute».

Gastibeltzaren karabinak eta *Harrizko Aresti hau*, Maskarada taldeak antzeztu zituen estreinakoz 1985an. Talde horretako arduradun Carlos Panerak azaldu zenez, «Euskal antzerki erreferentziarik gabea, Gabriel Aresti bizi balitz pertsona garrantzitsua litzatekeela uste genuen, eta haren omenez osatu genuen *Harrizko Aresti hau*». Ttanttakako Fernando Bernuések, aldiz, Aske bertako antzerkia hedatzen hasi izana «oso garrantzitsua» dela azpimarratu zuen.

Atzo aurkezturiko bigarren liburua, izenburuak dioen modura, Alfonso Sastre beraren obra du aztergai eta Europako zenbait unibertsitatetako hamaika irakasleren gogoetak biltzen ditu. Lana koordinatzeaz arduratu den Jose Angel Ascunceren arabera, «kritika eta azterketa literario bat izateaz gain, adiskide bati eta egungo antzerkigintzaren puntako pertsona bati eginiko gorazara ere bada». Ascunceren arabera, «Sastrearen antzerkia, egun egiten ari den antzerki serio, berritzaile eta apurtzaileena da. Aitzitik, gutxien aztertu dena ere bada». Liburuak, Sastrearen ibilbide osoa aztertzen duen arren, haren azken etapan —*La tragedia compleja* izeneko— jartzen du arreta gehien. Izenburua eta gibel-solasa Sastrearenak berarenak dira.

Alfonso Sastre • ANTZERKIGILEA •

«Antzerki idazleok baztertuak gaude»

EGUNGO antzerkigintzaren eraberritzaile handienetakoa da Alfonso Sastre (Madril, 1926). Europako zenbait adituk, bere obraren azterketa egiten dute *Once ensayos en busca de un autor: Alfonso Sastre* liburuan.

■ Zer sentitzen duzula hala-ko lan baten objektu nagusi izatean?


Lotsa pixkat sentitzen dut, azter-objetua neu naitzela ikustean. Haatik, antzerkigileok, eta artistak orohar, ohituak gaude, egiten dugunaz jendeak bere iritzia eman dezan. Dena den, hobe da hala izatea, zeure lanak interesa pizten duen seinale baita.

■ Zer iruditu zaizu liburu bera?

Liburu oso ona da. Gainera, liburu hauen bitartez, bakoitzak egin duenari buruz gauza berriak idori ditzake. Esaterako, antzerkigilea, obra bat idaztean, ez da darabilen egituraz jakitun. Gero, adituren batek lanak egitura konplexua duela esaten du, eta zu ez zara horretaz konturatu ere egin.

■ Une honetan zertan ari zara lanean?

Duela urte batzuz *Crítica de la imaginación* izeneko liburu bat atera nuen. Orain liburu haren jarraipena egiten ari naiz eta *Las dialécticas de lo imaginario*



XOUSE SIMAL

izango du izenburutzat. Antzerkigintzari dagokionez, egin nuen azkena polizi-istorio trilogia bat izan zen, baina oraindik ez da antzeztu. Horrek zertxobait tristetu nau eta idazteko gogoa ere kendu dit. Ni neu eta antzerki idazleok orohar, baztertu samar gaude antzerki konpainia eta produktorekiko.